

Euskera irakurtzean sarritan aurkitzen doguz guretzat ez ezagunak diran esakera ta joskerak. Jakifia! euren aurka ez dogu ezer eukiten. Zer euki? Poztu bai guk dakigun izkera txiroa baiño aberatsago dala euskera ikusten dogulako. Baña azkenengo denboratan ifundik ifiora ezin irunsi dodan esakera bat gaz txitean-potean aurkitzen naiz: erderazko "sino-ren" orde z jendeak darabilen "ez...baña..." ori. "Ez naiz etorri juzgatzer baña etorri naiz salbatzer". Indar aundia artu dau gure egunetan Bidasoa emendiko idazlien artian be Azular'eri ikusten dautsagun esakera orrek, modan sartu dala esan leike. Ostera, Azkue'ta Altube'k erderakadatzat jo izan dabe esakera ori. Ala be Orixe'k zabaldu dabela jakiteak (Agerre'ko Balendin, Jakin 14'gna) zer pentsau emon daust, Euskaldunak poemaren egillea euskera kontuan onenaren paren dalako.

Auzi au nik erabagi biar banen onela jokaturko neuke: esakera ori erritarra bada edo ifioiz izan bada ontzat emon euskal joskera arauri buruz txarto eratua bada be. Ta ostera, erritarra ez bada, gaiztetsi, naiz ta euskal joskeraren legez moldatur izan.

Baña esakera ori euskera jatorra balitz be, guk, sartaldeko euskaldunak badaukagu geure geurea dan beste esakera bat: "Ez naiz etorri juzgatzer salbatzer baño" "Ez naiz Mutriku'ra joan Itziar'era baño". Auzitara atara dodan beste

esakera ori be erabilten dogu, bafía beste asmo bat azalduteko.

Iñoiz Bilbora ez naizela joan ta irri egiten daustan bateri onela erantzungo neutsake: Bilbon ez ez naiz izan bafía Paris eta Londresen bai. Beste esakera ori ta gurea, biak, erritarrak izan ezke-ro, zein litzake egokiago? Ezin neikio oneri erantzun. Konjuzioak euskeraz batzutan gaztelar izkuntzan lez, alkartzen dituan itz edo oraziñoen erdian arkitzen dira. Beste batzutan barriz, euskerak daukan joerari jarraituaz atzizki lez. Dana dala, zuzen edo oker, gure esakera urrunago arkitzen da auzoko erderatik autuan darabildan esakera ori baño.

Sartaldekoen esakera oneri emon leiken akatsa auxe da: "Baño" azkenerako lagata oraziñoa illun gelditu leikela. Ikusi daigun Axularen zati bat: "Etsaitasuneko biktoria eta garaitza eztago ez mendekatzen eta ez ordaiñaren biurtzean edo doblearen; bafía dago barkatzean eta bidegabean pazientki pairatzean" (Gero, 2gn. or.). Oraziño au gure erara aulantxe da: "Etsaitasuneko biktoria eta garaitza eztago ez mendekatzen eta ez ordaiñaren biurtzean edo doblearen, barkatzean eta bidegabean pazientki pairatzean baño". Baña emen beste oar au egin bear dogu. Oneik, parrafo luzeok idazlien kontuak dira. Erriak geienetan esanaldi laburrak izaten ditu. Origaitik emengo esakerak ez dauke illuntasunik. Gafiera berbiari

emon oi dautsagun soñua naiko da oraziñoaren bi atalak bereizteko. Esanaldi luzeak diranean gure asmoa illun geldituko dan bildurra euki ezke-ro beste jokera bat artu geinke: bi zatitan banandu. Au noiznai egiten dogu idazleak, eta erriak be jokera ori badau, nai ta bere esanaia illun gelditzeko bildurrik euki ez.

Lotsa edo bildurrik ez dautsagun bateri, oker dagola esan naian lez, onela erantzuten dautsagu: "Ez naiz Mutrikura joan Donostira baño". Ostera, lotsarekin itz egin nai dautsagun bateri onela erantzungo geuntsake: "Ez naiz Mutrikura jonan. Donostian izan naiz". Biar bada ez dira oraziño guztiak bereizte orregaz konpondu leizkenak, bafía milla modu egoten dira asmuak azalduteko. Nik, beste askok lez, ez dot jakin oraintsu arte "ez... baña..." orregazko esakerarik, bafía onelako gogaiak azalduteko sekula ez dot euki eragozpenik.

Bidaso andiko ta emendiko idazle batzun esakera ori guretzat illun gelditzen dala esan dogu. Bafía orregaz ez dogu dana esaten. Esakera orreri batzutan errazoi gelago arkitzen dautsagu ta bestetan gitxiago. Batzutan alkarren aurka dagozan esanai bi lotzen ditu "...ez... baña..." orrek. Beste batzutan ez dagoz alkarren aurka konjuziño orrek batzen dituan esanaiak.

"Ez naiz Mutrikura joan, bafía joan naiz Donostira" esaten dabedian, erderaka dan edo ez dan ez

dakigu, baña argi dago nora joan dan eta nora joan ez dan. Ostera, ezin da illunago iruditzen yako ondorengo oneik: "Salegi senduago izan baldin ez trinketian baña bai gure frontoietan ere goi-mallako izango zan". "Gaur, etsai aunitz, siniskai bat edo besteren kontra ez baña Eliza beraren aurka altxatzen dira". Salegi'ren kontu ori irakurrita, pelotari orren berririk jakin ez eta esakera ori irakurtzen oitu bakoak, trinketerako ez zala ulertuko leuke, ez dira alkarren aurkakoak oraziñoaren bi zatiak-eta.

Arana Goiri'k be alkarren aurka dagozan eritxien alkartze ori oraziñoaren azkenean "baño" ipiñita egiten dau, bere Aita Gurea'n. Guri erakutsi euskuen (erderatik biur-tua, kontixu) Aita Gurea'k onela diño: "...ez eiguzu itxi tentaziñoian jausten, baña librau gaizuz gatxetik". Arana Goiri'renak: "zitzaldian ez gagizuz itxi gatxetik jabon baño".

Esan bearrik ez dago bietatik zein yakun gogokuago. Baña, au marka! Arana Goiri'n be ez dot oso osorik atsegiña. Ara zergatik. Gogai bat bi eratara esan geinke. Bat baiezko oraziñoz, ta bestea, ukapenezko oraziñoz.. "Ez dago euririk" eta "Aterri dago" berdiñak dira. Beraz niretzat ez dago ondo oraziño bi orrekin, "baño" bitartekotzat ipiñita, erderaz adversativa esaten yakun oraziñoa eratutea, oraziñoaren bi atalak gauza bat diñoelako. Aita Gurea'ko oraziñoaren bi zatiak be niretzat gauza bat esan gura dabe. "Zitzaldietan lagundutea" eta "gatxetik jabotea" gauza bat dira. Ta bat esan ezkerro bestea esan bearrik ez dago.

Oraintzu irakurri dodan antzerki baten itz onek ikusi nebazan. "Neuk dakidazan batzuk eztira nasai ibiliko ateso baño". Ta bere egilliari orain emen jarri dodan eretxi berbera agertu neutsan. Oker ete nabil?